

San Telmo Museoa “Hiriko eskulturen bilatzailea abian da”

Paseoan ari garela, hiriko hainbat istorio, pertsonaia edo garai garrantzitsuen oroigarri diren eskulturak topatzen ditugu oharkabea. Chillidaren Haizearen Orrazia edo Oteizaren Eraikuntza Hutsa dira ziurrenik obrarik ezagunenak. Eskulturen behin betiko erakusketa honetan, ordea, eskultura gehiago dago eta hauen inguruko informazio osoa jasotzen duen egitasmoa abian jarri du San Telmo Museoa.

Berreraikitze prozesu betean murgilduta dago San Telmo Museoa, baina beste lan batzuk ere hartu ditu. Besteak beste, Donostiako kaleko eskulturen atlas digitala edo katalogo birtuala osatu du. 90 eskultura bildu ditu guztira. Museoaren webgunean (www.santelmomuseoa.com) pieza guztien informazioa eta argazkiak kontsultatu daitezke.

Santelmomuseoa.com webgunea hiriko eskulturen bilatzailea da nolabait. Mapa baten bidez auzoz-azoko eskulturak ikus daitezke.

XX.mendeko eskulturak nagusi

Hiria eskulturen espazioa ere badela erakusten du atlas digitalak. 90 eskulturen artean, XX. mendean egindako eskulturak dira nagusi. Halere, badira XIX. eta XXI. mendeko piezak ere. Egileen zerrendan hirurogei sarrera daude, baina hauen artean obra anonimoak ere badira, baita taldeka sortutakoak ere, Equipo 57 edo Debako Tailerra, esaterako.

Katalogo birtuala, euskarri arina

Eskulturen atlas digitala ez da behin betikoa izango, noski. Eskulturen aldaketa guztiak jasoko ditu, eta hirian eskultura berriak jarritz gero, katalogoa hazi egingo da. Horregatik erabili dute atlas birtuala, tresna arina baita. Informazio berria jartzeko eta moldaketak egiteko ere euskarri egokia da.

Egitasmo honen oinarria 2006an San Telmok Koma Zerbitzu Kulturalak enpresari eskatutako lan batean dago. Hiriko eskulturen inguruko informazio osoa jasotzen zuen katalogo bat behar zuen San Telmok. Katalogo hark hiriko eskulturen egoeraren azterketa sakona egiteko aukera eman zien. Egin beharreko zaharberritze edo mantenu lanen zerrenda osatu ahal izan zuten.

Aiete eta Miramarren, behin behineko erakusketak

Krisi ekonomikoa dela eta, Udalak ez du eskultura gehiago erosteko asmorik. Halere, Denis Itxaso kultura zinegotziak Aiete parkean eta Miramar jauregian behin behineko erakusketak prestatzeko asmoa dutela adierazi du.

Euskarazko bilatzaileak huts egiten du

www.santelmomuseoa.com webguneko atlas digitalean murgiltzen hasi eta Dantzariak edo Haizearen Orrazia sarrerak jarritz gero, ez du guk eskatutako eskulturarik bilatzen. Gaztelerazko izenekin, ordea, bilaketa zuzena egiten du.

Frantziako pasealekuko ' dantzariak ' berriztatu dituzte

XX. mende hasierako eskultura da Frantziako pasealekuan dagoen Dantzariak obra. Hiru emakumeren figurek osatzen dute artelana eta urteak darama konponketa eta zaharberritze baten zain. Izan ere, dantzarien hatzak puskatuta zeuden, baita pandereta ere. Egun guztiz berriztatuta dago. Araba parkeko Maria Cristina erreginaren eskulturak ere hainbat eraso sufritu ditu. Burua moztu izan diote. Duela gutxi pintura bota zioten. Teknikariek kaltea konpontzeko modua aurkitu dute dagoeneko.

Okendo almirantea, zaharrena

1894. urtekoa da izen bereko plazan dagoen Okendo almirantearen brontzezko eskultura. Gerra Ministerioak emandako kanoi zaharrak urtuta egin zuten pieza, Bartzelonako Masriera tailerretan. Inaugurazio egunean erreplika bat jarri behar izan zuten, originala galdaketan apurtu egin baitzen. Behin betiko pieza 1895eko martxoaren 18an jarri zuten.